

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak apirileko euriek eta uholdeek kaltetutako udalerrien zerrenda berretsi du

Nafarroan kaltetutako 88 udalerrietarako zerga-salbuespenak ere arautu ditu kontribuzioari, jarduera ekonomikoei eta eraikuntza eta instalazioen zergari dagokienez

Asteazkena, 2018.eko maiatzak 30

Nafarroako Gobernuak Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioaren kontseilariaren maiatzaren 29ko 151/2018 Foru Agindua berretsi du gaurko saioan, apirilean gertatutako ezohiko euri-jasa eta uholdeen ondorioz kaltetutako udalerrien zerrenda onartuz eta udalerririk horietako pertsona fisikoek nahiz juridikoek balia ditzaketen salbuespenak eta udalek jasoko dituzten zerga-konpentsazioak zehaztuz.

Gobernuaren onarpen hau, uholde, haize-erauntsi nahiz bestelako fenomeno meteorologikoen ondoriozko hondamendiek kaltetutako pertsonari eman beharreko arreta eta laguntzari buruzko urriaren 30eko 11/2009 Foru Legearen 3. artikulua ezarritakoa betez egin da.

Herriak

Onartutako Foru Aginduan zehaztuenez, Foru Komunitatearen iparraldeko, erdialdeko eta hegoaldeko eremuetako 88 udalerririk izan ziren guztira, apirilaren 6tik 13ra bitartean gertatutako euri-jasen ondoriozko uholdeen kalteak pairatu zituztenak.

Hauexek dira: Zare, Ibargoiti, Orbaizeta, Orbara, Lerga, Irunberri, Auritz, Abaurregaina, Izagaondoa, Ledea, Lizoain-Arriasgoiti, Elo, Untziti, Urrotz, Galipentzu, Villafranca, Caparrosa, Caseda, Martzilla, Melida, Murillo el Cuende, Santacara, Altsasu, Arakil, Arbizu, Arruazu, Bakaiku, Ziordia, Etxarri Aranatz, Uharte Arakil, Irañeta, Iturmendi, Lakuntza, Olazti, Urdiain, Itza, Ollo, Artazu, Belaskoain, Berbintzana, Burlata, Ziritza, Etxarri, Etxauri, Ezkabarte, Falces, Funes, Girgillao, Uharte, Larraga, Mañeru, Mendigorria, Milagro, Miranda de Arga, Oltza Zendea, Iruña, Azkoien, Gares, Bidaurreta, Atrarrabia, Zabaltza, Cortes, Buñuel, Ribaforada, Fustiñana, Cabanillas, Fontellas, Tuteria, Arguedas, Valtierra, Castejon, Cadreita, Azagra, San Adrian, Lodosa, Estella, Carcar, Andosilla, Lerin, Ameskoabarrena, Burgi, Galar, Aribe, Oroz Betelu, Tafalla, Erriberri, Beire eta Pitillas.

Zerrenda honetan, eskaera aurkeztu ondoren sartu diren beste udalerririk hauek ere ageri dira: Zare, Ibargoiti, Orbaizeta, Orbara, Lerga, Irunberri, Auritz, Abaurregaina, Izagaondoa, Ledea, Lizoain-Arriasgoiti, Elo, Untziti, Urrotz eta Galipentzu.

Laguntzak eta salbuespenak

Gainera, Foru Agindua laguntzak arautu ditu, zehazkiago esanda

pertsona fisikoei eta juridikoei dagozkien salbuespenak eta zerga-konpentsazioak, betiere kontratatutako aseguru-polizen eta horrelako egoeretarako Estatuan nahiz Europar Batasunean egon daitezkeen bestelako laguntzen osagarriak eta subsidiarioak izango direnak.

Hartara, kaltetutako ondasun higiezinaren kasuan, salbuespena Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan eta Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergan aplikatuko da, kalteari dagokion portzentajearekin. Nafarroako Gobernuak zerga-konpentsazioa egiten die toki erakundeei neurri honen ondorioz kobratuko ez dituzten zergengatik.

Zerga-salbuespenez profitatu nahi duten pertsona fisikoek eta juridikoek eskaera egin beharko dute dagokien udalaren aurrean 2018ko urriaren 31 baino lehen.

Foru Aginduak, halaber, kaltetutako ondasunek aseguruia izan ala ez aurkeztu beharreko dokumentazioa zehaztu du.